



## LEGAZPIKO 'UZTALAI' UDALEKU IREKIETARAKO ZUZENDARIA ALDI BATERAKO HARTZEKO OINARRIAK 2026

### 1. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen helburua da Legazpiko Udaleko Euskara Sailak uztailean hurrei zuzendutako "Uztala" udaleku irekietarako zuzendariaren aldi baterako kontratazioa arautzea.

Kontratuak ekainaren 22tik uztailearen 24ra (biak barne) iraungo du eta lanaldia Udalak ezarriko du aipatutako programari aurre egiteko beharrak kontuan hartuta.

Ordainsaria: Legazpiko Udaleko ordainsarien taularen 7. maila.

Erreserbako zerrenda baten parte izatera pasatuko dira kontratatu behar direnak baino lagun gehiago badira. Kontratazioak egiterakoan, uko edo baja egoera baten aurrean erabiliko da zerrenda hori.

### 2. Prozesuan parte hartzeko baldintzak.

Onartua izateko eta hautaketa prozesuan parte hartzeko baldintza hauek bete behar dira:

1. 18 urte beteta izatea, izena emateko epea bukatzen denerako.
2. Aisialdiko zuzendari titulua izatea edo Lanbide Heziketako Animazio soziokulturala eta turistikoa titulua edo zuzendari-lanetarako baliokidea.
3. Euskararen B2 maila edo baliokidea izatea.
4. Beharrezko tituluak: Batxilergoa, Erdi Mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea den beste titulu edo ziurtagiria.
5. Funtzioak behar bezala betetzeko eragozpenik ez izatea, gaixotasun edo muga fisikoen ondorioz.
6. Inolako Administrazio Publikoren edo Autonomia Erkidegoetako konstituzio- nahiz estatutu-organoen zerbitzuetatik diziplina-espeditate bidez baztertu gabea izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.
7. Sexu-izaerako delituengatik aurrekari penalik ez izatea.
8. Kontratazio hau ez da bateragarria izango beste lan kontratu edo funtzionario izendapen batekin.

### 3. Eskabideak aurkeztea.

**Epea:** martxoaren 31tik apirilaren 17ra, biak barne.



**Lekua:** Legazpiko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ). Orduategia: 7:30etatik 15:00etara. Telematikoki egoitza elektronikoa: <https://egoitza.legazpi.eus/>

Halaber, eskaerak posta-administrazioetan aurkezteko aukera izango da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, 16.4 artikuluan araututakoari jarraiki. Horrela egiten bada, eskaerak Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko zaizkio kartazal ireki batean, posta bulegoko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaion, eskaerak aurkezteko epearen barruan. Dokumentuak posta-bulegoan aurkeztutako eguna Erregistro Orokorreko sarrera-data gisa hartuko da baldin eta baldintzak betetzen badira.

#### 4. Aurkeztu beharreko agiriak.

Interesdunak aurkeztu beharrekoak:

- Eskaera orria beteta ([www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus) Web gunean zein Legazpiko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan eskuragarri).
- Aisialdiko zuzendari titulua.
- Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatuko dituen beste edozein agiriren kopiak.

Udalak berak zuzenean egiaztatuko dituenak, interesdunak aurka egiten ez badu:

- Euskara mailaren ziurtagiria.
- Sexu-izaerako delituengatik aurrekari penalik ez izanaren ziurtagiria
- Lan-ibilbidearen agiria.
- Ikasketak.

*Ohar garrantzitsuak:*

- Baloragarriak diren merezimenduak lan-eskaera orriarekin batera doan eranskinean zerrendatuko dira.
- Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien fotokopiak erantsi beharko dira, Udalak bere esku ez dituen kasuetan.
- Ez da zerrendan aipatutako baina agiriekin egiaztatuko ez den merezimendurik baloratuko.

Lan-esperientzia ziurtatzeko kontratuaren fotokopia edo erakundeak egindako ziurtagiria aurkeztuko da.

#### 5. Kalifikazio-epaimahaia.

Epaimahaia osatu eta apirilaren bigarren hamabostaldian bilduko da aurkeztutako merezimenduak baloratzeko.



## 6. Izangaiak onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko da Legazpiko Udalaren web orrian ([www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus)).

Baztertuak izan direnek bost eguneko epea izango dute, zerrenda web orrian argitaratuko den unetik bertatik hasita, baztertuta geratzea eragin duten akatsak edo ez-egiteak zuzentzeko.

Behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikoa bihurtuko da, baldin eta erreklamaziorik aurkezten ez bada.

## 7. Hautaketa-prozesua.

Ondorengo irizpideei ezartzen zaizkien puntuazioen arabera, hautagai bakoitzeko puntuazio bat aterako da eta horren arabera kontratazioa egiteko erabiliko den hurrenkera lortuko da.

### \* Titulazioak:

- Aisialdiko zuzendari titulua:
  - ✓ Euskal Erkidegoan eskuratutakoa bada: 4 puntu

### \* Euskara:

- C1 maila: 3 puntu.
- C2 maila: 4 puntu.

\* Prestakuntza-ikastaroak: jolasa, aisialdia eta abarrekin erlazionatutako ikastaroak: gutxienez 10 orduko ikastaro bakoitzeko 0,5 puntu (ez dira 10 orduetik beherako ikastaroak ontuan hartuko); gehienez 2 puntu.

### \* Lan-esperientzia (gehienez 6 puntu):

- Ludoteka, aterpetxe edo baserri-eskola batean koordinatzaile lanetan: 1,5 puntu urte bakoitzeko (ez dira urtebete baino gutxiagoko epeak kontuan hartuko)
- Ludoteka, aterpetxe edo baserri-eskola batean begirale lanetan: puntu bat urte bakoitzeko (ez dira urtebete baino gutxiagoko epeak kontuan hartuko)
- Udaleku itxietan zuzendari edo koordinatzaile lanetan: 7-11 egun bitartean, 0,50 puntu eta 12-15 egun bitartean, puntu 1.
- Udaleku irekietan zuzendari edo koordinatzaile lanetan: 15 eguneko, 0,60 puntu (ez dira 15 egun baino gutxiagokoak kontuan hartuko).
- Udaleku itxietan begirale lanetan: 7-11 egun bitartean, 0,40 puntu eta 12-15 egun bitartean, 0,80 puntu.
- Udaleku irekietan begirale lanetan: 15 eguneko, 0,50 puntu (ez dira 15 egun baino gutxiagokoak kontuan hartuko)
- Aisialdi talde batean begirale gisa izandako esperientzia: 0,50 puntu urte bakoitzeko.



- Begirale gisa egindako bestelako lanak: 0,25 puntu urteko (gehienez ere 0,75 puntu)

#### Oharrak:

- Udalekuen kasuan ez dira kontratu desberdinetako egunak pilatuko eta ez dira egun horiek baino gutxiagoko kontratuak kontuan hartuko.
- Legazpiko udalekuetako esperientzia egiaztatzeke ez da agiririk aurkeztuko, Udalak berak egiaztatuko baitu ofizioz.

#### \* Herritartasuna:

- Legazpikoa izatea eta bertan bizitzea: 5 puntu.

#### \* Langabezia: aintzat hartuko da azken urtean (2025eko ekainaren 1etik izena emateko epea hasi arte) lanik gabe egondako denbora:

- lanean 60 egun baino gutxiago eman dutenek 3 puntu jasoko dituzte.
- lanean 61 egun baino gehiago eta 120 egun baino gutxiago eman dutenek 2 puntu jasoko dituzte.
- lanean 121 egun baino gehiago eta 180 egun baino gutxiago eman dutenek puntu 1 jasoko dute.

## 8. Izangaien zerrenda.

Berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenez hurren:

1. Herritartasuna: Legazpikoa izatea lehenetsiko da.
2. Ikasketak: gizarte arlokoak eta maila gorenekoak lehenetsiko dira.
3. Langabezia: langabe denbora gehien egon dena lehenetsiko da.
4. Zuzendari titulua: euskaraz egin izana lehenetsiko da.
5. Zuzendari titulua: lehenago eskuratu izana lehenetsiko da.

Eta irizpide horiek aintzat hartu eta gero, hala ere berdinketa ematen bada, puntuetan berdinduta dauden gainerako hautagaiekin zozketa egingo da.

Hautaketa bukatu ondoren, Epaimahaiak lortutako puntuazioaren ordenaren arabera zerrenda argitaratuko du Legazpiko Udaleko iragarki taulan eta Web orrian, eta onarpen proposamena igorriko du, aurretik aipatutako kontratazioa egiteko.

Baldin eta, zuzendari-lanak egiteko deialdia hutsik geratzen bada, koordinazio-lanak egitea proposatuko zaie begiraleak hartzeko deialdiaren ondoren osatutako zerrendako izangaiei, puntuazio gorenetik hasita eta goitik beherako ordena jarraituz.



## 9. Betebeharrak.

- Euskara da lan eta zerbitzu hizkuntza.
- Haurren uda ikastaroaren ardura izateaz gain, gerta daitezkeen ordezkapenak betetzea.
- Laneko era guztietako hutsegiteak 48 ordu lehenago jakinarazi beharko zaio Udalari eta ondoren, dagokion hutsegitea zuritzeko ziurtagiria aurkeztu beharko da. Arrazoitu gabeko lan hutsegiteak falta oso larriak izango dira eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Lege-dekretuaren 96.b artikuluan esaten denaren arabera jokatu da. Hau da, langilea kaleratua izan ahalko da eta aurrerantzean berriro kontratatzekeo desgaitua gelditu liteke.
- Begiraleek egin beharreko prestakuntza-ikastaroa gidatzea. Ikastaroaren eguna: ekainaren 20a, larunbata.
- Lanaldia: 8:00etatik 14:00etara.